XXIX - garren urtea, 227 - Zenbakia 1967 - Uztailak, 2

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

Valentí
URRE - LANAK
Plaza de Zaragoza, 2 - Urrut. 11825
antziña-gauzak
erredizak
bezuza-galak
erregaluak

EUSKALDUNEN ALFABETIZAZIOA



Maiz-esan dugun bezala, herri bakoitzak bere izakera du. Baiña izakerarekin batean esakera (izkuntza) badu, nortasun t erdi du. Hori baita sustraikako izakeraz ornitua izatea. Hori da horaindik euskaldun diranen berne giroa.

«Euskaldunak jeiki» izenburuzko artikulu pizgarrian, Mikel Ugalde k (Z. ARGIA, 225 zenbakian), Euskaltzaindiaren egizko alfabetizazio kanpaña izan zedin eskatzen zuan. Erantzun gisa, mugitu dela esateko, bijoa gaurko nere artikulu hau.

Bere lagungarri, mintzairari buruzko saiotxo bati ekinen diogu.

Izan ere, gizonaren izakerak, kondaira zear, bere gorakako eboluzioa eraman ahal izan du, izkuntzari esker. Zeren, gizonak bere bizitz iraupena ez dio zor berak fisiku aldetik dituan dohain hoieri, baizik bere adimentasuna eta bere eratzaille ahalmeneri esker. Ta, gizonaren bi dohai hauek izkuntzari loturik dijoaz.

Izkuntzak damaigu, bere muiñetan finkaturik, gure pentsamenaren estruktura.

Izkuntza ez da elkar adierazle bat bakarrik, baizik pentsatzeko tresna ere bai. Izkuntza ezin diteke pentsamenetik aldendu; pentsamena barnetikako izkuntza da. Horregaitik, zer ikusi handia dute izkuntzak eta pentsaerak. Ta pentsaerak berakin ditu sentierra eta irizkizuna, izakerari bere tajura berezia ematen diona.

Izkuntza batek, zibilizazio ta kulturaren batasuna darama, herri baten jatorrizko iturburu batetik jasoa, horregaitik dute herrietako gizonak buruzko izakera ta pokaera berezia, alkargo bakoitbari bere gogozko nortasuna ematen diona, politikazko lokarri guzien gaiñetik dagoana, iñoiz politika bidez, indarrean, etniazko estruktura hoiek austen badira ere. Behar bada hor izanen ditu bere sustralak Izkuntza gorde beharrez herriak bere politika bat jokatzea, bere jatorrizko izatea gorde nahirik, zenbait lekutan gertatzen dan bezala. Izan ere, legezkoa da gizon bakoitzak eta herri bakoitzak bere izatearen eskubideekin jabetu nahi izatea. ONU ak berak salatzen du «Declaración Universal de los Derechos del Hombre» izeneko dokumentuan, bigarren artikuluan esaten duenez: «Cualquier persona puede prevalerse de todos los derechos y de todas las libertades que esta Declaración proclama, sin ninguna distinción de raza, de color, de sexo, de lengua...»

Izkuntza da herri baten etnia geien bereizten duena. Aresti k oraintxu esan zuanarekin nago (Z. ARGIA, 224 zenbakian): Euskalduna izateko euskeraz egin behar da. Euskerarik gabe ez dago euskaldunik». Hor dago Izan edo ez izanaren kakoa.

Bai; euskaldunak ez diranak, erdeldunak dira, baldin gure izkuntzaren aburuz bereiztu behar bagenu; gure izkuntzaren aburuz eta arbasoen iritziz, eurak gure mintzairaren mamian era horretara txertatu zutelako gure nortasunaren zerga.

Horain, ustez aldatzeko, euskeraren funtsetik irten beharra dago, erderaren aburuz edo juzgatu beharra, bere gunetik irten beharra; baiña zentzundunak ondotxo daki iñoren gunean ez dagoala norperarena.

Guk, gu izateari uzten diogunean, beste norbait izango gera, bai; baiña ez gu. Euskaldunak ez. Bereziki izango ditugu gure izakeratikako dohaitxo ttipiak, dohain hondakiñak, lehen izanaren oroigarri bezala; baiñan ez herri batek bere magaletik sortarazi zuen nortasunaren indarrezkoak, baldin pentsaeraren estrukturak, bere irizpide berezlekin, gordetzen dituan izkuntza galtzen badu.

Izatez, norperaren izkuntza, guraseengandikakoa da, onduen konprenitzen dena, burua gutxien nekatuaz mintzatzen dena (sarri gure artean horrela ez bada ere, izan ditugun sarraskiegaitik), herri alkartu batentzat argiena, bere sustraikako izakera mendez-mende datorrelako, herri elkargo baten ar-emanekoa delako, ta horrek girotzen du norperaren izakera.

Gaur, izkuntza bateko semeak, iraupenerako, beharrezkoa dute kultura, beharrezkos beren izkuntzan irakurten eta idazten jakitea. Ta, gurean geienak dira ez dakitenak.

Aspaldi esan zuen Ibiñagabeitia adiskideak, euskaldunok giñala munduan analfabeturik geien genuen herria, geure izkuntzan ez irakurten eta ez idazten ez genekielako. Mingarria bada ere, ez da errazoi makala. Baiña, zoriones, gazte andana bat asia da Euskalizaindiaren babesean utsune hori bete nahirik. Udara honetan asiko dira lehen ikastaroak euskaldun izanik euskeraz ez irakurten eta ez idazten ez dakitenentzat.

Gogoan izan gaur dugun kalterik aundienetariko bat kulturaz urri ibiltzearena dela, ta batez ere, euskeraren zori txarra euskaldunok analfabetoak izatetikan datorrela.

Abegi onez lagunduko ahal diegu gazte kementsu holeri. Izkuntzarik zaharrenaren jabe garalako ditugun arrokeriak baztertuaz. Amor emanaz. Zeren kultura bide horretatik abiatzen ez bagera, galdusk bera.

Aulduak gaude, bai; auldiak eta atzeratuak. aBiña, iñoiz ez da berandu. Milloi erdi urteren utsunea dago Izkuntzen sorkundea izan zitekeanetik Idatzitako lehenengo dokumentuak arte. Ta, Europako oraingo izkuntza bizien literaturaren aberastasunik zaharrena ere, ez dijoa seireun urtetik harat. Lanak bizkortu lezake gure mintzaira aula, batez ere gazte bihotzetan garra denean. Betoz ordu onean irakasle gazte kementsuok.

JUAN SAN MARTIN